

## 7. BALIABIDEAK:

Baliabide fisikoak, finantza baliabideak eta giza baliabideak izango ditugu.

Baliabide fisikoen parte izango dira garraiatzeko eta zerbitzua eskaintzeko erabiliko dugun furgoneta eta bertan izango den makineria eta tresneria guztia:

- Takillak
- Mikroondasa
- Janaria prestatzeko plantxa
- Zartagiak
- Kazola
- Hozkailua
- Tresneria (pintzak, mahai-tresnak, espatulak...)
- Almacenamenduko altzairuak
- Garbiketarako produktuak.

Bestalde, furgoneta gordetzeko garaje bat erabiliko dugu. Honez gain gasolina, gasa eta salgaiak (janaria) ere beharko ditugu. Argindarra lortzeko, udaletxeekin hitz egingo dugu, leku egokian kokatuz furgoneta, hau posible izateko.

Finantza baliabideak langileei ordaintzeko dirua eta beharrezko materiala (Goxoari janaria barne) erostekoa diru kantitatea izango dira. Aldiz, enpresa zabaldu nahi izanez gero (beste furgoneta bat izanez), finantzatzeko dirua ere finantza baliabideen parte izango da.

Azkenik, giza baliabideen parte geu izango gara. Langile gisa janaria prestatzen eta berokiak antolatzen, zein enpresako administrazio kudeaketak egiten jardungo dugu. Bi pertsona “sukaldean” egongo dira Goxoak emandako janaria prestatzen; beste bat, janari hau bezeroei ematen eta kobratzen; eta azken bat, berokiak gordetzen, itzultzen, antolatzen... eta kobratzen. Astean zehar, hau da, festa garaia ez denean, administrazio lanez arduratuko gara, denon artean.

